

GLASGOWKO UNIBERTSITATEAN IKERTZAILE BISITARI IZATEKO LAGUNTZAREN DEIALDIA 2016

Xedea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak deialdia egin du laguntza bat emateko Glasgowko Unibertsitateko Kultur Politika Ikertzeko Zentroan (Centre for Cultural Policy Research) ikertzaile batek egonaldia egin dezan.

Diziplinak:

- Kultura
- Komunikazioa
- Komunikabideak

Iraupena:

Egonaldiak hamar hilabeteko iraupena izango du 2016-2017 ikasturtean zehar, 2016ko irailetik 2017ko ekainera bitartean; baina bost hilabeteko bi epealditan bana daiteke (iraila-urtarrila / otsaila-ekaina). Azken kasu horretan, hautagaiek bost hilabeteko epealdi bakarrerako aukera izango dute, eta, hortaz, beste hautagaiek beste epealdia hartzeko aukera izango dute.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat urtebetez bizi izana 2016ko urtarrilaren 1ean. Hala ere, antzintasun bera izanik, atzerrian bizi diren eskabideak ere onartuko dira, baldin eta atzerrian bizi diren espainiarren erroldaren (AEE) bidez Euskal Autonomia Erkidegoan auzotasuna badute eta atzerrian bizi aurreko azken auzotasuna Euskadin izan bada.
- b. Doktore gradua izatea.
- c. Ingelesa jakitea.

Eskaerak aurkezteko epea:

2016ko ekainaren 9ra arte (egun hori barne)

UPV/EHUko IRiek eskaerak aurkezteko prozedura:

Eskatzaileek UPV/EHUrekin lan harremanik izanez gero, egonaldiak dirauen artean kanpoan egoteko baimena edo lizentzia eduki beharko dute.

GARRANTZITSUA: Eskatzaileak berak aurkeztu behar du dokumentazioa epe barruan online aplikazioaren bidez, deialdiko 4. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru_languntza/2016/ikerglasgow/